

Eusko Jaurlaritzak FCC Construcción-Construcciones Olabarri-Guihor Estructuras de Hormigón-Construcciones Donosti enpresen arteko aldi baterako elkarteari (UTE) esleitu dio Euskal Y-ko Ordizia-Itsasondo zatiaren eraikuntza.

2007ko Uztailaren 26ean kontratazio espedienteari argi berdea eman ondoren, Abuztuaren 10ean Ordizia eta Itsasondo arteko zatiaren eraikuntza lanetarako lizitazioari ekin zitzaion. Guztira, 36 enpresek aurkeztu dituzte euren eskaintzak, 15 aldi baterako enpresa elkartetan banatuta.

Eskaintza desberdinak aztertu ondoren eta Garraio eta Herri Lan Sailak osatutako ebazpen txostena ikuskatu ondoren, Eusko Jaurlaritzak erabaki du FCC CONSTRUCCIÓN-CONSTRUCCIONES OLABARRI-GUIHOR ESTRUCTURAS DE HORMIGÓN-CONSTRUCCIONES DONOSTI enpresen arteko aldi baterako elkarteari esleitzea, “Euskal Trenbide Sare Berriaren plataforma eraikuntzaren lanak, Gipuzkoako zatiari dagozkionak, Ordizia eta Itsasondo artean”, guztira 50.462.733 €-ko balioaz, lau urterokotan banatua egongo dena.

Gehienera jota, 27 hilabeteko epea dute kontratuaren arabera, lanak osatzeko. Eraikuntza lanak, aurretiko lan administratiboak egin bezain azkar hasiko dira, 2008ko hasieran hain zuzen ere.

Ordizia-Itsasondo arteko trenbide zatiak Ordizia, Itsasondo eta Legorreta zeharkatzen ditu. Guztira 2,8 km-ko luzera du (2.859 metro). Horietatik %98 (2.814 metro) tunelean dihoaz eta 45 metro besterik ez, lur gainetik. Trenbideak bi bide ditu (norabide bakoitzeko bana), nazioarteko zabalera du eta 4,7 metroko distantzia dago trenbide ardatzen artean. Gehienera, 12,19 milésimetako malda izango du (merkantziak garraritu ahal izateko gehieneko malda 15 milésimetakoa da). Euskal Trenbide Sare Berri guzian bezelaxe,

bidaiariak ezezik merkantziak ere garraiatu ahal izateko diseinatu da Abiadura Handiko Trenbide zati hau ere, Ordizia eta Itsasondo artekoa, alegia.

Eusko Jaurlaritzari dagokio jakina denez, Euskal Y-aren Gipuzkoako zatia eraikitzea, horrela jasotzen baitu 2006ko apirilaren 24ean Estatuko gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak sinatutako komenioak. Itun Ekonomikoaren laugarren eranskinari jarraiki, Eusko Jaurlaritzak Estatuko Gobernuari ordaintzen dion kupotik “deskontatu” egingo zaio Euskal Y-aren Gipuzkoako zatia eraikitzeko aurreratutako dirua. Modu horretan, euskal herritarrentzat estrategikoa den azpiegitura moduan itzuliko da Euskadira euskal ogasunek Estatuari bideratutako aportazioa.